





KATHRINE SWITZER

“ASKOZ HARROAGO NAGO 50 URTEREN OSTEAN KORRIKA EGITEN JARRAITZEAZ, LEHENENGO MARATOI HARTAZ BAINO”

TESTUA | AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

ILUSTRAZIOA | MAITANE GARTZIANDIA

1967ko apirilaren 19an Bostongo maratoian korrika egin zuen Kathrine Switzerrek (1947), ofizialki maratoi batean parte hartu zuen lehen emakumea bilakatuz. Lasterketako arautegian eta izen-emate orrian generoari buruzko zehaztapenik egiten ez zenez, “K.V. Switzer” bezala eman zuen izena. Genero markarik gabeko izen laburdura horrekin, bakarrik gizonezkoen parte-hartzea ahalbidetzen zuen idatzi gabeko araua urratu eta maratoian korrika egiteko onartua izatea lortu zuen. Ordutik kirolean emakumeen presentzia indartzeko lanean aritu izan da, eta egun emakumeak korrikaren bitartez ahaldundutza dihardu *261 Fearless* elkartearen bidez.

Korrikak toki garrantzitsua du zure bizitzan.

Nondik datorkizu afizioa?

Hamabi urte nituela, parte-hartzaile izan behar nuela esan zidan aitak, ez ikusle. Nik hockey taldean sartu nahi nuenez, etxeko lorategia neurtu genuen eta egunero zazpi itzuli ematen nizkion,

kilometro bat guztira. Entrenatu egin nuen, eguneroko kilometro horretan kontzentratzen nintzen hockey taldean sartu ahal izateko. Egia esan ez nekien ezer hockeyaz, nirea korrika egitea zen.

Aititik, indarrez defendatu behar izan zenuen emakume izateak ez zintuela korrika egiteko ezgai bilakatzen.

Gizonezkoak nire amarengana hurbiltzen ziren, bere alabari zer gertatzen zitzaion eta zergatik korrika egiten zuen galdezka. Askori arraroa eta berezia iruditzen zitzaion. Iraupen-lasterketetan eta distantzia luzekoetan seriozki korrika hasi nintzenean, egiten nuena onartzeko errezeloak azaldu zituzten emakume batzuek, emakumeak ziren nirekin sartzen zirenak. Hasieran nik berauez paso egiten nuen, baina gero ohartu nintzen gertatzen zenaz: “Ez dute parte hartzen beldur direlako”. Eta nik jarrera hori aldatu nahi nuen, bai bainekien korrika egitearen sentimendua miragarria dela, autonomo eta boteretsu sentiarazten zaituela. Sentimenduok emakumeekin partekatu nahi nituen.

Bostongo lehen maratoni hartan korrika egin zenuenean tradizioarekin hautsi zenuen. Imajinatzen dut jarrera askotarikoak eragin zenituela jendearengan.

Mito asko zeuden emakumeei eta kirolari buruz: “Gizon bilakatuko zara”, “bularraldean ilea aterako zaizu” edo “uteroa eroriko zaizu, inoiz ez duzu haurrik izango” bezalako usteak zeuden, eta horrek emakumeak beldurtzen zituen. Mezuok tontakeria iruditzen zitzaizkidan niri, 42 kilometro korrika egiteko ideia niretzat erronka baitzen, ez ezintasun bat. Mito guzti horietaz eta emakumeengan zuten eraginaz ohartu nintzenean, oso desgainaturik sentitu nintzen, eta emakumeei gauza asko egiteko gai izatearen konbentzimendua helarazi nahi izan nien.

Gizonezkoei beldurra ematen zien korrikak beraien emazteei nolabait eragin ahal izateak, eta horrek mesfidati bilakatzen zituen. Alabaina, ni korrika hasi nintzenean gizonen ideia ona zela pentsatu zuten, gustuko zuten ni korrika ikustea. Baina gauzak aldatzeak denbora dezente eraman zuen.

Tradizioaren atzean dagoen ideologia desmuntatzeak eramaten duen denbora, akaso?

Bai, ideologia hori puskatu behar zen. Inork egiten ez badu, jendeak “ezin da egin” esaten baitzuten. Horregatik, “egin egingo dut” esan nuen nik. Ondorioak pairatu nituen: Bostoneko maratoni zuzendariak lasterketarik kanporatu nahi izan ninduen, eta ostean federazioetik kanporatu ninduten, ez zidaten ezertan parte hartzen utzi. Nik korrika egiten jarraitu nuen ordea, eta beste lasterketa batzuetan parte hartzeri gonbidatu ninduten. Uste dut ni zenbat eta gehiagotan korrika ikusi, orduan eta emakume gehiago animatu zirela korrika egitera.

Bostongo maratoni kanporatua izatear zinel, bikotekideak eta entrenatzaileak laguntza eskaini zizuten lasterketa amaitu zenean. Nola sentiarazi zintuen keinu hark?

Nik ez nuen nahi nire bikotekidea lasterketara etortzerik. “Zuk ez zenuke lasterketara etorri behar korrikalaria ez zarela” esan nion, eta “zuk egin ahal baduzu, neuk ere bai” erantzun zidan berak. Oso harroputza zen. Atleta ona bai, baina ez korrikalaria ona. Kanporatu nahi izan ninduen lasterketako zuzendaria jo zuenean asko haserretu nintzen berarekin, nik ez baitut jendea kolpatzen, ez bainaiz bio-

lentoa. Baina gizon honek kolpe egiten zidan, dortsala kendu nahi zidan. Egia esan, nire bikoteak lagundu egin ninduen. Beraz, esan dezakegun gizonezko batek eraso egin zidala, eta beste gizonezko batek salbatu ninduela. Baina momentu horretan neu ere aktibo bilakatu nintzen, nire erabakia izan baitzen lasterketa amaitzea, erabakiaren gaineko erantzukizuna neure gain hartuz. Entrenatzaileak ere asko lagundu ninduen lasterketa guztian, nigan sinesten baitzuten, ikaragarri entrenatu nuelako.



Banekien amaierara heldu ezean jendeak ez zuela sinetsiko emakumeak maratoni parte hartzeko gai zirenik

Zuzendariarekin tirabira gertatu zen momentuan beldurra sentitu zenuela irakurri dizut. Sentimendu hori zure helburua lortzeko indarrean bilakatzeko gai izan zinen ordea.

Zeharo beldurtu nintzen eraso jasan zenuenean. Ez nekien zer egin nuen gaizki. Lasterketa izorratu nuela pentsatu nuen, baina banekien amaierara heldu ezean jendeak ez zuela sinetsiko emakumeak maratoni parte hartzeko gai zirenik. “Emakumezkoak gauza hauek egiten ahalegintzen diren arren, ez dira gai halakorik egiteko” esango zuten, beraz erakutsi beharra neukan lasterketa amaitzeko gai nintzela.



Emakumeak eta gizonen batera korrika egitea gauza ederra da, baina batzuetan geure espazio propioa behar dugu

Korrika jarraitu nuen, indarra biltzen joan eta amorrua galtzeraino. Zuzendaria ezjakin hutsa zen, barkatu egin nion eta korrika jarraitu, “konbentzituko zaitut gero” pentsatuz. Emakumeenganako amorrua ere sentitu nuen, “zergatik ez daude emakume gehiago nirekin?” galdetzen nion neure buruari. Konturatu nintzen korrika egiteko aukera izan balute han egongo lirakeela, eta korrika egitearen aukera emakume gehiagori luzatu behar niela ondorioztatu nuen. Mo-

mentu hartan maratoni ibilbide profesional bilakatu zitzaidan, bizitzako plana.

Emakumeak gizonezkoen kirolerako tokia izan behar dutela defendatu duzu, baina ere berean soilik emakumeentzako lasterketen beharra ikusten duzu. Egongo da ideia batezinez direla dioenik.

Soilik emakumeentzako diren lasterketak antolatu izan ditudanean gizon askok ondokoa esan izan didate: “Zuk apurtu zenuen generoaren traba, zer dela eta antolatzen dituzu orain soilik emakumeentzako lasterketak?”. Nik hainbat arrazoi ezberdin daudela erantzuten diet. Lehenik eta behin, emakumeei beldurra eragiten ez dien inguru batean parte-hartzea ahalbidetzen die. Bestetik, emakumeak estrategia bat garatzeko gai direla ikasi behar dute, beraien erritmoaren erantzukizunaren kargu egin, eta hori barneratzeko aukera bakarra emakumeentzako lasterketak dira nire ustez. Emakumeak eta gizonen batera korrika egitea gauza ederra da, baina batzuetan geure espazio propioa behar dugu.

Ia denok 1967ko argazki historikoak irudikatzen zaitugu, naiz eta mende erdi igaro den eta korrika jarraitzen duzun. Generoarena gutxi ez, eta adinaren muga ere apurtzen ari zara?

Geroz eta gehiago publikatzen dituzte nire gaur egungo argazkiak, eta hori interesgarria da. “Ahulegia zara, hauskorregia, ezin duzu hori egin, jarri zaitez, egon lasai, bihotzekoak eman ahal dizu”, esaten zaie pertsona nagusiei. Jende askok adinekoei buruz hitz egiten duenean, orain 50 urte emakumeez hitz egiten zen ere berean egiten du.

Zer eman dizu Bostongo maratoni hura bukatuaz geroztik gaur arteko bideak?

Askoz harroago nago 50 urteren ostean korrika egiten jarraitzeaz, lehenengo lasterketa hartaz baino. Bostongo maratoni lehen aldiz egin eta 50 urtera ostera egiten duen lehen emakumea naiz. Ez da ni jeniala naizenaren adierazgarri bat, orain mende erdi korrika egiten zuten oso emakume gutxi zeudela esatera datorren datua baizik. Uste dut iraultza sozial bat sortzen lagundu dugula, gaur egun milioika emakume egiten baitute korrika, beraien autoestimua, konfiantza eta osasuna indartuz. Hori da datoen belaunaldiari helarazi behar diegun mezua, hori da mundua aldatuko duena. ●